

LASTER HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN DATU-BASEA INTERNETEN KONTSULTAGARRI EGONGO DA


Herri Musikaren Txokoan ditugun J. M. Beltran Argiñenaren Herri Musika Biblioteka, fonoteka eta Soinu-tresna Bildumen datu-basetako fitxak 2005. urtean interesatu guztien esku Internet sarean egongo dira.

Herri Musikaren Txokoak Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatearekin egindako akordio baten ondorioz, 2004-2005 ikasturterako Bittor Perez informatika ikasleak bere ikasketa bukaerako proiektua Herri Musikaren Txokoko web gunearen egokitze lanetan egingo du.

Beraz, zehatz mehatz egitasmo honen helburua hau da: HM Txokoaren Web gunean liburutegi, fonoteka eta soinu-tresna bildumen datu baseak kontsultagarri jartzea. Horretarako, gure WknoSYS datu-baseetako informazioarekin "XML native" datu-base bat eraikiko du eta kontsultak egiteko web orri formulario bat diseinatuko du.

Erabiltzaileek bilaketak alde, ikuspuntu, parametro edo "kanpo" askotatik egin ahal izateko fitxen estrukturak jarraian agertzen den moduan izango dira:

Biblioteka artxiboko fitxen kanpo kontsultagarriak: EGILEA, IZENBURUA, EDIZIO DATUAK, GAIK (abestiak, arte eta kultura, bestelako musika eta musikariak, bestelakoak, dantza, etnografia-etnologia, euskal kultura, folklore-antropologia, haurra, herri musika, historia, musika idatzia, musika pedagogia, soinu-tresna), JATORRIA, BILDUMA, ISBN, DESKRIBAPENA (orrialde kopurua eta liburuaren altuera), KODE TRESNA eta KOKAPENA (alea non dagoen gorderik).



Fonotekako fitxen kanpo kontsultagarriak: IZENBURUA, EMAILEA (interpretea(k), FORMATOA (D-disko singel, DAT, DZ-disko zaharra, K-kaseta, KD-CD, KD+CD, KD+CD+Liburua, KD-Liburua, LP, LP txikia, LP+Irudia, LP+Liburua, MD-mini disc, Z zinta), EDIZIO DATUAK, JATORRIA, BILDUMA, EDUKIA (grabazio zerrenda edo deskribapena), SOINU-TRESNA (soinu-tresnen izenak), KODE TRESNA (soinu-tresna motak kodifikaturik), KODE MUSIKA (aintzinakoa, bestelakoa, folka, herri-musika, klasikoa), KOKAPENA (alea non dagoen gorderik)

Soinu-Tresnen artxiboko fitxen kanpo kontsultagarriak: ZENBAKIA (bilduman duen zenbakia), IZENDAPENA, JATORRIA, SAILKAPENA, ARGAZKIA,

NEURRIAK, KOKAPENA, BILDUMA, EGILEA, EGINDAKO DATA.

Irudi Artxiboko oso fitxa gutxi daudenez eginak, ez dugu sarean orain jarriko, beste artxiboekin batera materialaren zati garrantzitsu bat prestaturik dagoenean baizik.

Momentu honetan fitxa guztien kanpo guztiak ez daude egin. Ahal den neurrian fitxa guztiak betetzen joango gara eta hori egiten den momentuan eguneratua geratuko da sarean eskeintzen diren artxiboetan.

Zerbitzu berri honekin HM Txokoak aurrerapauso handi eta garrantzitsua ematen duela iruditzen zaigu eta honetatik ikertzaile nahiz ikasleek probetxu ona aterako dutela.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udaberriko kontzertua

2005ko apirilaren 23an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan



ENRIQUE, ANA eta VALENTIN. FALTZESKO JOTEROAK (Nafarroako Erribera)

Enrique García "Kaniko": Ahotsa eta gitarra. Faltzesen jaioa, 1950. urtean

Ana García Otxoa: ahotsa. Faltzesen jaioa, 1951. urtean

Valentin Alvarez de Eulate Allo "Patena": Ahotsa. Faltzesen jaioa, 1942. urtean.

Enriquek eta Valentinek Nuestra Señora de las Nieves abesbatzan 1960. urtez geroztik kantatzen dute. Tenorrek dira.

Jotero hauek ezagutu dute bertako aurreko joteroen belau-naldia eta haien kantu saioak entzunez ikasi zuten. Horrela eta aurrekoei lekukoa harturik tabernaz taberna, plazaz plaza eta kalez kale jotak kantatzen hasi ziren 17 edo 18 urterekin.

Garai hartako Faltzes aldean oso jotero onak ezagutu zituzten, besteak beste: Periko Mendoza "El Cuartiau", Bernardino Autor "Jaleo", "El Bosico", Ignacio Olkoz

"Gurrion", Joakin Lagarza, Jose García "El Canico" (Enriqueren aita), Angel Juguera "Botellín",..

Enriquek gitarra jotzen Jesus Martínez "El Gato" bertako gitarra jolerearekin ikasi zuen eta soinu-tresna horrekin parte hartu zuen 1960. hamarkadako Faltzesko errondailan.

Gaur egun hiru jotero hauek noiz nahi entzun ditzakegu Faltzesen, edozein ospakizunetan berezko eta aberatsa den giro hori eskeintzen. Horrela ezagutu ditugu Makaia Elkartera inguratu garenok eta bazkal edo afal ondorengo saio luze eta atsegin horietan egoteko aukera izan dugunok. Udaberriko kontzertuan garai hartako eta berriagoak diren jotak entzuteko aukera izango dugu, ahots hutsez, bakarka edo bikotez, eta gitarrarekin lagunduta.

Gaiari dagokionez ere oso zabal da erreperorioa: errondako jotak, ardoari eskeinitakoak, amodiozkoak, gai sozial eta politikodunak.... Tartean Raimundo Lanás nafar jotero ospetsuak kantatzen zituenak ere entzungo ditugu .

Besteak beste jota hauek kantatuko dituzte:

En Navarra no sabemos
La Berza
Jotas de ronda
Hemos salido de Ronda
El cairé
La segadora
Tengo plantada una flor
Cantaba la perdigana
Pajarillo lisonjero
Coplas de Monteagudo
Atravesé las Bárdenas
Se oyó en el cielo una jota
El Zortziko con la jota
Que se vayan ya los yanquis
A la tierra en que he nacido
Larragatik Gernikara
Raimundo Lanás ta Etxahun
Cuando salí de la cárcel
Palomica

udaberriko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.

JUAN ALFONSO FERNANDEZ GARCIA EVA TEJEDOR MIER (Asturias)

LA ZANFOÑA: SONES, CANTARES Y BAILES DE LOS CIEGOS

JUAN ALFONSO FERNÁNDEZ GARCÍA

Zanfonaz gain gaita ere jotzen du eta Asturiako musika tradizionala lantzen duten zenbait talderekin jo izan du, besteak beste: L'Abadía, La Quintana eta Xana. Musika tradizionala jorratzen duten Banda Gaites Lleorio, Lliberdón, La Martaleña,... taldeen partaidea ere izan da eta zenbait grabazioetan ere parte hartu izan du, adibidez: Camín de Bres, Tamos fartos, La zanfona en España, Ea, señores usías: cantares y sones de ciegu n'Asturies, El son nel romanceru asturianu, Muyeres III. Gaur egun Xixongo "Museo de la Gaita"ko zuzendaria da.

EVA TEJEDOR MIER

Perkusioa erakusten du Nava eta Castrillongo Musika Tradizionaleko eskolatan. Avilesko Banda Gaites Tabladarko partaidea da eta "La cuerria'l texu", "Soto Rei" eta "El trasgu" gaita taldeen perkusioa zuzentzen du. Tejedor taldean perkusiolaria eta kantaria da. Bere grabazioen artean aipagarrienak: "Texedores de sueños" eta "Llunáticos" (Tejedor bere taldearekin), Muyeres II eta "Hecho en Asturias" (zuzenean grabatuta Victor Manuel kantariarekin batera).



Aingeru taldeetan eta gorte eszenetan irudikatuta agertzen zen zanfona XIV mendera arte. Hortxe hasi zen bere gainbeherako bidea eta tabernetako eta eskaleen soinu tresna bilakatu zen. Halere Versalleseko gortean berpizkundera ezagutu zuen, garaiko moda bukoliko eta "naturalistak" eragindako jauntxoen babespean.

Asturiasen, itsumutilak lagunduta eta "pliegos de cordel" edo "aleluyas" bezalako paper inprimatuez horniturik herriz herri zebiltzan itsuek erabilitako soinu-tresna izan zen zanfona. Beraien zeregina dantza-saioetarako musika egitea eta koplak kantatzea: gertaera pikante edo eskandalugarriak, hilketak, agerpen miresgarriak, trabukoz eta labanaz armaturiko heroien abenturak,... Horretarako perkusio xumeen laguntza ere izaten zuten.

40. hamarkadaz geroztik, itsuek aspaldiko beren koplari lanbidea loteria saltzailearenarekin elkar trukatu zutenetik, hain zuzen ere, ez da kalean entzuten musika mota hau baina kontzertu honetan gogoratzeko aukera izango dugu.

laguntzaileak:



TXALAPARTA ERAKUSKETA OIARTZUNEN



Erakusketaren zati bat.

EUSKAL HERRI MUSIKA SAHARAN

Sahararen aldeko Oiartzungo El-Watan elkartearen eskutik H.M. Txokoak euskal herri musika Saharara eraman du. Oiartzun eta Saharako Tichla herriak senidetuta daude. Hori dela eta, badira bost urte El-Watan elkarteak bisitak antolatzen dituela eta oraingoan bertan gure musika erakutsi nahi izan du.

Martxoaren 19tik 26ra, Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetako eskoletan aritu dira Juan Mari Beltran Argiñena, Andoitz Antzizar eta Ander Barrenetxea musikariak. Herri ezberdinetako eskoletan lau kontzertu eskeini zituzten eta horretaz gain besteak beste jaima batean antolatutako auzoko festa batean parte hartu zuten eta ilargi betearekin desertuko duna handi batean magiaz beteriko txalaparta saio berezia eskeini zuten.

Smarako eskola publikoan



BISITARI KOPURUA

Abendua: bisitari kopurua: 94

Antolatutako taldeak: 5

Urtarrila: bisitari kopurua: 125

Antolatutako taldeak: 6

Otsaila: bisitari kopurua: 220

Antolatutako taldeak: 11

Martxo: bisitari kopurua: 343

Antolatutako taldeak: 14

Bisitari kopurua apirilera arte: 8.129

Datorren maiatzaren 4etik 14era bitartean txalapartari buruzko erakusketa berezia ikusi ahal izango da Oiartzunen. Antolatzaileak Ziburuko Festival des 3 cultures eta Oiartzungo Herri Musikaren Txokoa dira eta lekua M. Lekuona Biblioteka izango da.

TXALAPARTA, EUSKAL HERRIKO BIHOZKADA izenburupean erakusketa hau adarra eta txalaparta eredu ezberdinez dago osatuta, baina 4 panel adie-razgarriak ere badaramatza, soinu tresna honi buruzko informazio ugarirekin. Informazio gehiago ere eskeintzen ditu erakusketan ipinita dagoen multimedia sistemak. Kartelak, argazkiak eta beste elementu ezberdinak ere aurki daitezke hemen.



Txalaparta tailerra Oiartzunen

HERRI MUSIKAREN TXOKOA OIARTZUNGO "GAZTE FOROAK" ETA "KALE EKINTZAK" ANTOLATZAILE TALDEEKIN ELKARLANEAN

2005eko Otsailaren 26an Oiartzungo "Gazte Foroak" (Hautzaro Ikastola eta Elizalde Ikastetxeko DBH1-etik 4-ra arteko ikasleak) eta Nekane Martiarena arduradun duen "Kale ekintzak" taldeak, hainbat tailer (Didjeridoo, Txalaparta, Taloa, Malabarak eta Grafitiak) antolatu zituzten Doneztebe plazan 17:00etatik 20:00etara. Bertan Herri Musikaren Txokoak ere parte hartu zuen. Txalaparta tailerra Oiartzungo Herri Musika Eskolako txalaparta irakaslea den Iñigo Monreal eta Herri Musikaren Txokoaren laguntzaile, musikaria eta txalaparta irakaslea den Aitor Beltranek eman zuten. Ikastaro hauetara 100 bat gazte gerturatu ziren, horietatik 25 inguru izan zirelarik txalaparta tailerrean aritu zirenak. Hau guztia Landetxe enparantzan egin zen eta afari kontzertuarekin amaitu zen.

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

